Barañaingo udal hauteskundeen ondorioek, mezu argi eta zehatz bat eman dute: eguneroko politikagintzan aldaketa baten beharra gurean. Behar beharrezko genuen aldaketa eskatu dugun udal taldeok kanpainen zehar eta botoek emandako ardura gure gain hartu eta praktikara eraman behar dugu. Eztabaida eta kontsentsu baten fruitu bezala, azpian sinatzen dugun taldeok, akordio programatiko bat lortu dugu hurrengo lau urteetarako Barañainen.

Egingarri ikusten dugu udal politika berri bat aktibatzea, osoa, biltzailea, gardena eta batez ere parte hartzailea. Pausu txiki eta jarraituak emanez norabide honetan, ikara unerik gabe, denon artean adostu eta doituarekin... ondorioa lagungarria izango da Barañainerako orokorrean.

Barañaingo herriak izan behar du aktore nagusia etapa berri honetan. Halaber, Udalak lanabes erabilgarri, gertuko eta irekia izan behar du bizilagun guztientzat; eguneroko politikagintzan eta eskusiorik egin gabe. Bizilagun ezberdinen arteko esperientzia eta dinamiken elkarbizitza eta elkar trukaketa bultzatu behar du.

Programa honek konpromiso irmo eta erabakia du giza eskubide guztien defentsarekin, bai arlo zibil zein sozial edo ekonomikoan, bai ingurugirozko edo politikoan, pertsonen egoera administratiboarekin independenteki. Bakea eta bizikidetzaren bultzatzeko lan batzorde baten artikulazioa martxan jarriko da. Barañaingo Udala sortu zenetik aurrera herrian bizi izan den egoeraren inguruan elkarrekiko gogoeta ahalbidetuko duen markoa izango da. Errelatoen eta iraganeko irakurketen aniztasunetik, gure herriko sentsibiltate politiko ezberdinen arteko espazio komun bat bilatuz. Horrekin batera, sinbologiaren gaian Barañaingo kolektibitate ezberdinei errespetua ahalbidetuko dugu perspektiba inklusibo batetik.

Zehaztasunez lan duin eta gardena egingo dugu. Hiritargoaren parte hartzea bultzatuko dugu, partekatutako kudeaketa espazioak bide emanez gizarte mugimenduei.

Akordio honek jasotzen dituen neurri konkretuez gain, uste dugu gizartearen gehiengoak duen egoera gogorrean, Udal berriek aldaketa sozialerako beren ekintza eremutik ardura bat badutela. Udal honek austeritate neoliberal politiken aurka egingo du, pertsonak lagunduko dituzten beste batzuen alde eginez, botere ekonomiko handien interesei aurre eginez. Halaber herriari eman behar zaio hitza berak erabakitzeke bere etorkizuna gai sozial, ekonomiko eta politikoetan.

Honakoa lortzeko udalek aldaketa, erakundetze eta mobilizazio palanka bat izan beharra dute.

Akordio programatiko hau, gure herriaren errealitate sozialarekin dinamikoa eta kontsekuentea izango da.

BARAÑAIN, 2015KO IRAILA

1- GIZARTE ZERBITZUAK

- Auditoria soziala: Barañaingo gizartearen egoera zehatza edukiko duen txosten bat, Gizarte Zerbitzuetako teknikoek, Guraso Elkarteak, eskoletako jantokien, Caritas eta abarren bitartez, informazio hau jasotzeko medio puntualak bideratuz.
- Udararen behar duten Barañaingo haurren elikadura ziurtatzea.
- Udaletik ekintza sozial eta elkartasunezkoak sustatzea.
- Pobrezia energetikoaren aurkako neurriak bultzatzea: informazioa eman arazo honi buruz, sentsibilizatu, datuak bildu, laguntzen sorrera...
- Honako inguruan lan egiteko esparru solidario baten sorrera: jakien banaketa zentroa, denbora bankua, talentu bankua, arropa, liburu edo bestelako bilketa, etab.
- Enplegu berriraketa sozialerako espazioak berrindartzea eta neurri ezberdinak horiek eusteko. Tailer eskola, enplegu tailerra eta enplegu soziala babestu eta bere funtzionamendua hobetu.
- Langileen beharrak ikertu eta aztertzea eta beharrezko balitz, langile eta bitarteko gehiagorekin berrindartzea (bitarteko teknikoak, egon daitezkeen beharrak, ...)
- Kanporatutako zerbitzu tekniko bakoitzaren kudeaketaren egoera analizatzea (Lege Aholkularitza, Migrazioa , SAD delakoa, Berdintasuna ...) kudeaketa publikoa lehenesteko konpromiso argi batekin eta kasu guztietan, kontrol publiko bat bermatu.

ETXE KALERATZEAK

- Sostengu, elkarrizketa eta laguntza etxe kaleratzearen kontra lan egiten duten taldeei, baita kaleratzeek eragindako sendi eta pertsoneri.
- Erakunde Sozialekin, insitutzioekin eta Lege Aholkularitzarekin informazioa elkartrukatzeko kolaborazioa.
- Batzorde Mistoa berpiztea, aktuazio protokolo bat garatzen lan egingo duena, beste lan batzuen artean.
- Herriko banku eta kutxeekin kontaktuan jartzea beraien esku hutsik dauden etxebizitzak zeintzuk diren ezagutzeko helburu sozial bat emateko.
- Nafar Gobernuarekin harremanetan jartzea jabegokoak diren erabilgarri diren etxebizitzei zein helburu sozial eman ahal zaien jakiteko.
- Barañain, etxe kaleratzeen kontrako herriaren deklarazioa mantentzea.
- Barañain "Etxe kaleratzeen kontrako" herria izendatu.
- Banku entitateen aurrean laguntza eta bitartekaritza, Abokatuen Elkargoarekin, HKP taldeekin eta etxebizitzaren alde lan egiten duten taldeekin koordinazioa.
- Udalaren eta aurrez elkarrizketa bat izan gabe etxe kaleratzeak egin eta bitartekaritza zerbitzuak onartzen ez dituzten banku entitateen arteko elkarlana birplanteatu.
- Ahal den neurrian etxe gabetzetan Udal poliziaren erabilera galaraztea.

KULTUR ARTEKO HARREMANAK

- Kolaborazio eta solidaritate internazionala mantentzea, gehien bat gure herria etorritako migranteekin, arrazoiak eta exodoaren arrazoiak salatuz.
- Aurrekontuaren %0,7ra bideratu nazioarteko elkar laguntzan aurrera eginez.
- Ezberdintasuna aberastasun kultural bat bezala bizi ahal izatea bultzatuko du Udalak.

- Elkar topaketa, txarla, aktibitateak eta ospakizun kulturalak bezalako ekimenei espazioak eskaintzea eta integrazio eta kultur arteko trukaketen alde egitea.
- Udalean etorkina hartzeko zerbitzu bat egitea ikertu eta sortu behar bada gauzatzea.
- Sahara, Palestina eta antzera zapalduak dauden herriekiko elkartasuna.

PERTSONA HELDUAK

- Pertsona helduen udal kontseilua sortzea, parte hartzailea eta bere funtzionamendurako beharrezko bitartekoekin proposamenak aurrera ateratzeko. Kontseilu honen bitartez, Barañaingo bizilagun eta gizarte ekimenetan pertsona helduen parte hartze eta inplikazioa indartu egingo dugu. Kontseilu honek perspektiba integral bat edukiko du biztanle sektore honen inguruko gai guztiez aritzeko.
- Udalerrian eguneko zentro erabilera anizdun bat bultzatzea, langile kualifikatuekin eta zerbitzu hauen erabiltzaileek behar dituzten ordutegiak. Zerbitzuok administrazioaren aldetik beharrezko diru laguntzak igorrituko dira erabiltzaileen ordainketak ez daitezen izan beraien diru sarreren gehiegizko atal bat.
- Behar duten nagusi guztiek beraien etxebizitzetan laguntza jasotzea, osasun eta elikaduran laguntza dutela bermatuz.
- Etxebizitza tutelatu, adinekoen egoitza edo eguneko zentroen beharra ikertu.

BERDINTASUNA ETA POLITIKA FEMINISTA

- Emakumeen kontseilua indartzea (sustatu, dinamizatu, zentzu honetan lan egin).
- Emakumeek bere buruari boterea ematearen alde lan egitea.
- Tailerrak, txarлак eta dinamikak bultzatzea eskola, institutu, gazten bajera, bertako komertzioan... matxismoa, homofobia, arrazakeria edozein motatako injustiziak desterratzeko.
- Hezkidetzeta plan baten osatzea ikasketa zentroetan hezkuntza komunitate guztia inplikatu duena, hala nola Barañaingo haur eta gazteekin erlazioatutako pertsonak, plan hau garatzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatuz.
- Nafarroako gobernuarekin lan egin bitarteko guztiak jar ditzan Barañaingo emakumeen zentrorako aurreikuspena eta formakuntza bermatuz, hala nola osasun laguntza herriko emakume guztiei beraien egoera administratiboa dena delarik.
- Borroka nekazina Udalaren aldetik sexu erasoei. Udalaren erantzun protokoloa diseinatzea Barañainen ematen diren erasoaren aurrean.
- Barañaingo 4. Berdintasun planaren egituratzean lan egitea, bere garapen eta ezarpenaren jarraipena eginez.
- Elkarte eta kolektibo feministekin elkartasuna eta elkarlana lantzea.
- Eraso sexisten aurkako kanpainak abian jartzea, baita berdintasunaren aldekoak ere herriko sektore ezberdinetan (ostalaritza, komertzioa,...).
- Emakumeen kontseiluan emakume gazteen parte hartzea bermatzea eta auto-estima, eraso, mikroi-matxismoak, internet, sare sozialak eta kontrola,... gaien inguruan informazio protokoloak osatzea.
- Emakume etorkin eta sendi bakarrekoez beharrezko neurriak hartzea ikerketa bat eginda.
- Kirol eta jarduera fisikoak proposatzea emakumearen berdintasuna sustatze aldera, emakumearen errealitatearen analisi batetan oinarrituta helburu izango duena eta emakumeen praktika bultzatzea kirol neurriak sustatuz.

- LGTBI delakoa: lesbiana, gay, transexual eta bisexualen askatasun afektibo sexualen babesean lan egiteko borondatea hartuko dugu heteropatriarkatuaren aurka eginez eta berdintasun errealaaren alde, Udaletik gaur egun dauden hesiak apurtuz berdintasun sozial osoa lortzeko, LGTBI kolektiboekin bat eginez.
 - Eskoletan: sexu aniztasunaren arloan material espezifikoa egitea eta formazio programa espezifikoa hezkuntza afektibo-sexualean.
 - Osasungintzan: Sexu Osasun Plana: GIB eta beste ITS direlakoen prebentzio kanpainak izan ditzaten.

2- ZERBITZU OROKORRAK

- Eskakizun politiko bezala planteatuko ditugu azken bi erreforma laboraletan biltzen diren neurrien ezabatzea, zeinak ordezkatuak izango diren gure instituzioetan negoziazio kolektibo baten emaitzarekin, lehentasunezkoa uste duguna. Beste lan erlazio esparru eredu bat nahi dugu. Gure helburua “publiko arloan lan prekarioa zero” izatea da. Lanaren behatoki bat sortu nahi dugu parte hartze hiritar, sindikal eta sozialarekin.
- Formazio kurtsoak eskaintzea elkartasunezko entitate eta sindikatuekin.
- Enpresa txikientzako diskriminazio positibo irizpideak egoteko lizitazio publikoetan mekanismoak ezartzea eta baldintzen eskaintzetan abantailak ematea irizpide ekologikoak dituzten enpresei edo kontratu bakoitzean zer ikusia daukaten lanaren kantitate eta kalitatean.
- Merkataritza ibiltaria erregulatzeko hobekuntzak.
- Merkataritza lan mahaia. Neurri guztiz berriak.
- Udal instalazioetan software askearen alde apustu egitea eta informatika zerbitzuen municipalizazioaren aldekoa.

PARTE HARTZEA

- “Parte hartze” erregelamendua osatzea. Horretarako azken bi legegintzalditan egindakoan oinarrituko gara. 2015eko abendurako onartua izango da.
- Bertan gutxienez puntu hauek kontuan hartuko dira:
 - Bizilagunek batzordeetan eta bere kasuan udalbatzetan beraien komunikazioa eta parte hartzea arautzea.
 - Batzordeetan parte hartzea eta parte hartze hau zabaltzea gaiak eragin zuzena egiten dionari.
 - Herria eta Udal arteko informazio eta komunikazio zuzenak ahalbideratuko dira. Gutun ontzi fisikoa, korreo-helbideak, eta RRSS direlakoak, erantzun denbora jakin batekin eta bide bakoitzeko erantzun arduradunarekin.
 - Irrati eta Telebista publiko baten bideragarritasun txostena prestatzea informazioa indartzeko baita herritarren parte hartzea eta kultura bultzatzeko.
 - Plenoak zuzenean ematea.
 - Garrantzizko gaietan erreferendum eta kontsulta lotuak egitea.
 - Informazio eskubidea ziurtatzea herritar guztiei, entitate publikoei eta lan publikoan parte hartzen duten pribatuei. Hala nola bilduta dagoen informazio guztia, kontuan izan gabe nola dagoen bilduta. Herritarren eskuetan jarriz ez

delarik beharrezkoa izango informazio basiko eta esentziala eskatzea.

Aurrekontuen aurkezpen ez teknikoa eskuragai izatea bermatu.

- Ikertu nola Kontsulta talde bat eratu herriko sektore ezberdinek parte hartu ahal izango dutena, era arautuan kasu puntualetan bildu ahal izango dena.

AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

- Aurrekontuen prozesutik eratorritako lanaren bidez lortzea 2017ko aurrekontuetarako loteslea izatea, 2016an lehen urratsak eman ondoren.
- Laguntza teknikoa bilatzea ahalbideratuko duen prozesu bat proposatzen dugu, teknikoak prestatzeko eta elkarrekin ere prestakuntza jardunaldiak izateko, aurrekontu partekatuek nola izan behar luketen zehazteko. Beste esperientzia batzuetan oinarrituta aurrealdintza hauek dituztenak proposatzen ditugu:
 - Bere buruak araututa.
 - Loteslea.
 - Asanbladaren aginduzko mandatua izango duten delegatuen aukeraketarekin.
 - Asanblada aurreko eztabaida esparruak izan daitezela asanblada prozesuaren aurretik.
 - Zuzeneko demokrazia (gizon bat, emakume bat, boto bat).
 - Onartutakoaren jarraipen sistema batekin eta gizarte kontrolarekin.
 - Kontuak eman.
 - Gizarteratzera bideratua eta desberdintasunak gainditzera.
 - Heziketa sortuz gizarteak prozesu hau bere gain har dezan.
 - Instituzioa eta administrazioaren lanabesean jarritz prozesua.
- Inbertsio publikoak erabakitze kontsulta lotua eta arautua egingo da. 2016an zehar beste lekuetan egiten diren esperientziak azaltzeko ekintzak egingo dira eta kanpaina bat gizarte partizipazioa bultzatzeko.
- Udal laikoa. Udalak ez du parte hartuko inongo erlijio sinesmenek antolatutako ekintzetan. Publikoak diren lokaletan, ez da egongo erlijio kutsua duen inongo ikonarik.
- Elkarte eta kolektibo ezberdinei Udaleko lokalak eta gelak erabiltzea erraztu. Lokalak uzteko arauak berrikusi eta erabilpen anitzeko gela berreskuratu.
- Elektrizitate horniketa kooperatibetan Udalaren parte hartzea aztertzea., eta aurrezpen energetikorako neurriak.

3- MUGIKORTASUN SOSTENGARRIA

- Iruñerriko Mankomunitatea premiatzea Mugikortasun Plan Integral bat egiteko konpromisoa har dezan. Gure presentzia ziurtatu Iruñerriko Bigarren herria garen heinean eta zuzenki eragiten digun heinean. Aurrez aurre egoteko beharra bere birdimentsionatzean. Garraio eskualde baten alde gaude non publikoa izango den, tarifa eta ingurugiro politika sozial batekin.
- Herrian pasioak eta ibilbideak prestatu. Dauden azpiegiturak hobetu eta zonalde berdeak egin posible den lekuetan. Horretarako eskolekin kontaktuan ikasketa plan bat egin, herritarren parte hartzea bultzatuz eta eskoletan naturarekiko errespetua erakusteko formazio plan orokor batekin.
- Zuzendaritza plan bat diseinatzea bizikletaren erabilpenerako.

- Bizikleta bideak ordenatu eta arrazionalizatzea, herri barneko aldean oinarritzko sare bat lehenetsiz. Bizikleten aparkalekuak sortu.
- 30 zonaldea bultzatu trafikoa lasaitzeko.
- “Lanera bizikletaz”, “eskolara bizikletaz” kanpainak bultzatu.
- Udal barruan bizikleten erabilera bultzatu (udaltzain, udal-ordenantza,...) ohitura onen adibide.
- Bizikleta erabiltzearen aldeko kontzientzia, sustapen eta formazioa bultzatzea.
- “Eskola bideak” proiektua martxan jarri, garraio sostengarria eskola bertatik sustatuz eskola aldera eta aldrebes, txikienen autonomo ohiturak sortuz.
- Mugikortasun plan serio bat osatu arreta berezia edukita bizikleta bideen zirkulazio eta erregulazioari, espazio publikoaren erabilpenari eta garraio publiko eta bestelako sostengarriei.
- Bizikleta alokairua aztertu eta bultzatu.
- “Eskola bideak” aztertu guraso elkarteekin batera.
- Zirkulazio-antolamendua Iruñerria mailan eratzea.

4- INGURUGIROA

- Zaborren (plastikozko poltsak, ontziak, ...) murrizketaren alde egitea eta birziklapena bultzatzea.
- Zuhaitzen eta beraien inguruko zoladura zaintzea.
- Zuhaitzen inbentarioa egitea.
- Udal partzeletan hiri baratzak sustatzea Udalpean eta borondatezko parte hartzez.
- Zuhaitzak babesteko arautegia prestatzea.
- Energiaren azterketa egitea erabilera murrizteko eta ahal den neurrian energia garbiarekin aldatzen joatea. Energia garbia bultzatu etxebizitzetan eta Udal instalazioetan.
- Ahal den neurrian kontsumo publikoa kontratatu energia garbia eskaintzen duten kooperatibekin.
- Agenda 21 berreskuratzea.

5- ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA

- Udaletxeko zerbitzu juridikoek ere etxebizitza gaiak aztertuko dituzte. Hutsik dauden etxebizitzaren egitasmoa.
- PPEk gelditua duen Etxebizitza hutsen Legea, Parlamentuari berreskuratu dezan premiatzea.
- Diru Kutxa automatikoen instalazioa eta ustiatzen dituztenentzat ordenantza fiskala sortzea, baita kalean dauden beste zerbitzuentzat beraien etekina alokairu sozialari eskainiz.
- Iruñerriako hirigintza komisiorekin harremanetan jarri, hiriko zabalgunea Barañain inguruan koordinatua izan dadin, hauen ondasun eskubideak errespetatuz.
- Hirigintza inguruan hartuko diren erabakietan bizilagunen parte hartzea bultzatuko da hauei dagokionean.
- Herriko enparantzak berritzailekoan bizilagunen iritzia kontuan hartzea.
- Hiri gimnasioak sortzea.

- Barañaingo instalazioen azterketa egingo da, bizilagunen beharren arabera hobetzeko eta erabilera berriak aztertuz. (Lakuko kuboak, Sahats eskola, hutsik dauden lokalak...).
- Alokairuko pisuentzat azterketa egin eta soldaten %30etik ez dadila igo. Baita Udal lokalak, pisu tartekoak eta hutsik dauden espazioenak. Hauentzat arauak sortuz.
- Asoziazio, kolektibo, ...Alokairuko Arautegia sortu.
- Bankari eskatu beraien esku dauden etxebizitzak alokairuan jar ditzaten.
- Elizak Barañainen ordaintzen ez dituen Concordatua dela eta zergak aztertzea.
- ZERT berrikusi eta aztertzea.
- Berritu Lakuko espazio gunea partekatuz.
- Lur publikoa herriaren zerbitzura egon behar da eta ez ekonomia edo enpresen onurarako. Hornidura publikoa eta kolektiboentzat soilik.
- Landa eta eraikitzeke diren lurri zergak kobratuko zaizkie.
- Hirigintzako asmoak berraztertuko dira eta behar denean bitartekoak jarritz bizilagunen parte hartzearekin.

6- POLITIKA LINGUISTIKOA

- Helduen euskalduntzea Euskara zerbitzuaren helburu nagusienetako bat izango da, horretan lan egiten dutenekin, euskaltegiarekin, elkarlanean arituz, plan zehatz bat aurrera eramanez eta beharrezkoak diren laguntza ekonomikoak emanez.
- Euskaraz bizi ahal izateko espazioen identifikazioan lagunduko da, lekuen adostea, "arnasguneak".
- Gazteei, koadrilei, kirol taldeei, komertzio eta jendarteari zuzendutako sentsibilizazio kanpaina erakargarriak egitea. Ekintza zehatzen bidez, familian euskararen transmisiorako erraztasunak jarriko dira. Beste aldetik ere, erdaldunei zuzendutako kanpainak burutuko dira, euskaraz bizi nahi dutenekiko enpatia bultzatuz.
- Kanpaina ausartak eta eraginkorrak bultzatuko ditugu euskararen espazioa aldarrikatzeko, Musika eskola eta eskolaz kanpoko jardueratan euskaraz dagoen eskakizunari arreta emanez.
- Administrazioako organo instituzionalak, hala nola, plenoak, komisioak, ... euskaraz burutu ahal izateko neurriak hartzea. Euskara zerbitzuko funtzioak finkatu eta itzulpengintza zerbitzuaren sorrera baloratzea.
- Herritarrei zerbitzu guztiak euskaraz bermatzeko bideak jartzea, langileen euskalduntze programa aplikatuz, borondatea bultzatuz eta ez inposaketa. Plantila organikoa onartzeko orduan kontutuan izango da. Ordezkapenetan kontratazioan izandako irizpide berdinak jarraituko dira.
- Ordenantza martxan jarriko da, berrikusi eta eguneratuko da, euskararen erabilera bultzatzeko.
- Euskara zerbitzua Udaletxean kokatzea aztertuko da.
- Udaletxearen web gunerako sarrera www.baranain.eus- etik ere izatea, eta hasierako orrialdea elebiduna izatea.
- Udaletxerako lan egiten duten enpresen kontratuetan euskara baloratzea, egingo duten zerbitzuaren arabera.
- Euskara kontseilua martxan jartzea, euskaraz burutuko dena, horretarako beharrezko diren baliabideak jarriko dira kide guztiek saioa jarraitu ahal izateko.
- Kirola eta aisia: entrenatzaile eta begiraleei zuzendutako euskarazko formakuntza bultzatuko da, haien lana euskaraz ere egin ahal izateko.

- Enpresa publikoetako kontratazioa, udaletxeko plantilla organikorako kontutan hartu diren irizpide linguistiko berdinekin egingo da.
- Auditorio eta kultur arloan: euskarazko kontsumoa aztertzea eta horren arabera sustatzea.
- Liburutegian euskarazko materiala ere izango da, egunkariak, liburuak, aldizkariak, ...
- Laguntza ekonomikoak aztertuko dira: Bai Euskarari proiektua, Guraso elkarteak, helduen euskara ikasketak, euskararen aldeko kanpainak, udako eta neguko kanpaldiak, ...
- Paisai linguistikoaren azterketa eta aldaketa progresiboa egitea, kale-izendegia, seinaleak, errotuluak, ... euskararen presentzia ere bermatzeko.

7- KULTURA

- Kultur mailan diagnostiko bat burutzea; herriko artista, musika talde eta pertsona sortzaileen sare bat egitea bermatuko dugu, haien difusioa bultzatzeko.
- Kultur etxeko eta Auditorioko erabileraren aztertzea, dantza, musika edo proiektuen sorkuntzarako tailerrak, ikastaroak eta entseguak burutzeko, baita arte eta sorkuntza erakusketa eta praktikarako, kolektiboen eta pertsona interesatuen laguntzarekin. Ordenantza berrikusiko dugu, ordutegiaren luzapenerako eta tasen murrizketarako.
- Kultur ekintzetarako aurrekontuak berrikusi eta neurrikoak egitea, metodologia aldatuz, gizarteratuz eta parte hartzea bultzatuz.
- Kolektiboen ekintza kulturala edo soziala garatzeko, herriko lokalen erabileraren azterketa egitea.
- Festetarako eta kultur mailako ekintzak aurrera eramateko, erreferente diren kolektibo eta elkarteekin koordinatzea. Sortuko diren jarduera desberdinak herriko zonalde desberdinetatik zabaltzea.
- Interkulturalitatea eta asoziazionismoa bultzatuko dugu, espazioak eta ekimenak proposatuz eta haien parte hartzea sustatuz herriko kultur mugimenduan.
- Kaleko eskaintza kulturala bultzatzea, kolektiboekin batera haien parte hartzea planifikatuz ere.
- Eskola publikoen erabilera aztertzea, ekintza kulturalak, sozialak edota bizilagun taldeentzako.
- Giza eskubideak eta elkartasunaren inguruan lan egin, hitzaldiak, eztabaidak, topaketak eta gaiaren inguruko aste bat planifikatuz.
- Auditorio, musika eskola, liburutegia eta kultur etxea entitate desberdinen arteko politika kultural komuna sortu eta planifikatzea.
- Kultur ekintzetan animalien tratu txarren aurka agertuko gara, azken batean herritarrek izango dira erabakiko dutenak.
- Kultur teknikarien baliabideak aztertu eta hobetzea, ekintzen garapenerako eta festen antolaketarako.
- Herri barnean, kultur espazioen seinaleztapena hobetu.

8- HEZKUNTZA

- 0-3 urteko zikloa, jaiotzetik pertsona guztien hezkuntzarako eskubidea defendatzea. Beste heziketa zikloak bezala, Hezkuntza Departamentuak bere gain har dezan

premiatuko dugu. Familia guztientzat, haur hezkuntzarako sarrera bermatua gelditzea. Etapa honetan guraso elkarteak bultzatuko ditugu. Beharren azterketa egingo da eta euskarazko eskaera ere kontutan hartuko da.

- Haur eskoletako koordinatzaile edo zuzendarien perfila plantilla organikotik aterako da eta hezitzaile lanarekin osatuko da eta hezitzaile presentzial moduan lan egitearekin bat etorri daitekeena.
- Azpiegiturak, Nafar Gobernu eta Iruñeko udaletxearen arteko elkarlana bultzatuko dugu herriko eskolen mantentze lanen eta inbertsioen beharrei erantzuteko. Umeen jatorria kontutan hartuz eta beharrezkoa balitz subentzioa igoz.
- Hezkuntza proiektuak- Proiektu curricularrak, herriko gaiak eskoletan landu daitezela lagundu eta babestea, herriko bizitzan parte hartzerako espazioak eraikiz, non Barañaingo kultur eta kolektibo sozialak inplikatu ahal diren. Herriko errealitatearekin bat egingo duten eskolak nahi ditugu baita eskoletan egiten den lana herrira zabaldu ere.
- Hezkidetzak, berdintasunaren aldeko programak bultzatuko ditugu eta berdintasun zerbitzuaren bitartez, Udaletxe eta eskolen arteko hitzarmenak egin ere.
- LOMCE-aren ez aplikazio bultzatuko dugu, babes politiko, soziala eta administratiboa bermatuz. Horretarako eragileekin elkarlana sustatuko dugu.
- Sahats eskolako beharren inguruko azterketa bat egingo da, beste jarduerekin tartekatze eta energia aurrezte aldera.
- Berrikusiko dira zentro pribatuei ematen zaien diru-laguntza eta kontutan hartuko da haien umeen jatorria ere.
- Ludoteken funtzionamendua aztertuko da eta beharrezko ikusten diren neurriak hartuko dira.
- Eskolaz kanpoko jardueren sustatzea, irakurketa kanpaina adibidez.
- Eskolako umeen artean herriko instalazioen erabilpena sustatu.

9- KIROLA

- Gaur egungo udal kirol azpiegituren eta martxan dauden ekintzen egoera analizatzea egon daitezkeen gabeziak atzemateko: hobekuntza puntualak, jokatzeko duten eta joka dezaketeko papera, ze behar eta eskakizun errealak dauden, etab. Udal kirol eta jarduerak fisiko guztia bateratzeko helburuarekin.
- Nagusientzako jarduerak fisikoak: espazioak eta ekintzak zabaltzeko aukerak (adibidez, hiri gimnasioa, etab.).
- Barañainen Nafarroako kirol txapelketak jokatzeko Nafarroako Gobernuarekin koordinatzea.
- Lagunak: Gaur egungo egoeraren berrazterketa eta analisisa: balizko hobekuntzak, beharrak, hobetu daitezkeen aspektuak, herritargoarengandik gertu (berezkoa bezala sentitu behar dute herritarrek, Barañainen patrimonio eta balore gisa).
- Herri kirolak indartzea eta laguntzea, baita hain ezagunak edota hain orokortuak ez dauden beste kirol eta jarduerak ere.
- Barañainen Kirol Foroa sortzea, gure herriko kirol arloko Udal, talde, kolektibo, elkarte, sekzio eta pertsonen arteko elkartzeko puntua izateko helburuarekin (hitzaldiak, tailerrak, kirol astea, lanaren eta ekintzen koordinaketa, etab. antolatze aukerak).

10- GAZTERIA

- Barañaingo Gazte Kontseilua eratzea, herrian aplikatu beharreko gazte politiken erabakitze organismoa izanik. Organismo horretan, Udalaz gain, gazte elkarteek, koadrilek eta norberaren izenean nahi duten gazteek parte hartzen ahalko dute.
- Barañaingo gazte elkarteetatik martxan jartzen diren ekimen kulturalak eta aisiarako zein prestakuntzarako ekimenak indartzea eta babestea.
- Gazteen asoziazionismoa bultzatzea, laguntza emanaz eta tokien lagatzearen bidez.
- Errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak bultzatzea helburu, formakuntza eta hezkidetzaz sustatzea.
- Barañaingo gazteriaren artean alokairua sustatuko duen etxebizitza politikak indartzeko aukerak aztertzea.
- Baragazte Barañaingo gazteriarentzako elkartzeko gune eta oinarrizko zentro izan behar du. Baragaztearen funtzioen eta irismenaren azterketa egitea. Etorkizunean kudeaketa publikoaren aldeko apustua egingo duen prozesua abiatzea.

11- HIRITARREN BABESA

- Hiritarrarengandik gertuko Udaltzaingoa garatzea, eraginkorra eta Barañaingo egoera sozialarekin bat egiten duena. Oinarrian, bitartekaritza soziala egitera, mugikortasuna eta ingurugiroa zaintzera edo larrialdiak koordinatzera egongo da zuzendua, beti ere eraginkortasuna baloratuz eta bikoiztasunak ezabatuz, eremu honekin harremandutako gainontzeko udal arloekin elkarlanean.
- Genero indarkeriako kasuetan jokaera protokoloak aktibatzea eta indartzea, baita larrialdi kasuetarako protokoloak ere.
- Iruñerriko udaltzaingoarekin harremanak areagotu ezagutzen interkonexioa egiteko helburuarekin, eta materialaren erosketan kosteak merkatzeko ikerketa komuna egitea.
- Eguneko edozein ordutan eta edozein arazori arreta eskaintzeko polizia bulegoan laguntza iraunkorra. Denuntzien intimitate handiagoa bilatze aldera, bulegoen erreforma.
- Egungo bizikidetzaz ordenantzaren eta herritarren eskubide eta betebeharren kartaren moldaketa eta egokitzea, kontsentsu bidez, hezkuntza-prebentzio neurriak aintzat hartuz eta adierazpen askatasunarekin adeitsu izanez.
- Mugikortasuna baliabide ekologiko eta ez kutsakorrekin sustatzea (txirrindula, kotxe elektrikoa, ...)
- Ikasleen segurtasunerako eskola hiri bideak aztertzea eta aktibatzea, beste udalerrietan egiten den antzera.
- Langileriaren bideragarritasun ikerketa egitea, mila biztanleko udaltzain bat egoteko egungo ratioa Iruñerriko beste herrietako ehunekoetara gehiago gerturatu dadin.

12- OGASUNA

- Udaletxearen egoera ekonomikoaren diagnostiko aktual eta erreala eskuratzeko ikerketa egitea. Sarreren eta gastuen balantza aztertu eta aurrezpenerako alternatibak bilatzea.

- Udal lokalen errolda sortzea, baxerak barne, baita hauen kudeaketarako ordenantza ere.
- Lan eskubideen eta zerbitzuen kalitateen galera suposatzen duten pribatizazioak saihestea. Esternalizatutako zerbitzu publiko bakoitzaren kudeaketaren egoera aztertuko duen ikerketa egitea, kudeaketa publikoa lehenesteko eta, edozein kasutan, kontrol publiko eraginkorra bermatzeko konpromiso argiarekin.
- Ordenantza fiskalen berrikuskapena.
- Udaletxeko web orrialdean Udal aurrekontuen eta hauen betetze egoera publikatzea.
- Kontribuzioaren ordainketan malgutasun neurriak aktibatzeak aukerak aztertzea.
- Herrian enpresa berrien sorrera eta ezartzea erraztea eta laguntzea. Enpresa mintegi baten sorrera posible egitea.
- Proiektu komunak egiteko europar instituzioekin elkarlanean aritzea.
- Baraberri enpresa publikoaren berreskuratzeko lanak berehalakoan hastea, egun pribatizatuak dauden zerbitzuak publiko bilakatzeko.
- Barañain, biztanleriaren kopuruaren arabera, Nafarroako hirugarren udalerrri handiena da eta hortaz gure papera aldarrikatu behar dugu. Baina datu horrek desberdintasuna sortzen du, izan ere emari ekonomikoa biztanle kopuruaren arabera arautua dago kasu gehienetan, eta ez dira aintzat hartzen industria poligonoak edota hiri zabalkunderako espazioak izatea bezalako beste faktore batzuk. Horrela suertatzen da biztanle gutxidun eta jarduera ekonomiko garrantzitsua duten herriek sarrera asko dituztela eta ekarpen gutxi egiten dutela. Barañainen kasua kontrakoa da. Nafar Gobernuarekin elkarlana bultzatu behar da Tokiko Ogasunen birbanatzearen alde, gure autonomia bermatuko duen sarrera finakoak ziurtatzeko eta ausazko diru sarrerak baztertuz. Finantza autonomia bermatu autonomia politikoa izateko.
- Nafar Gobernutik nahiz Estatutik datozen eskumenak aurrera eraman ahal izateko finantzaketa nahikoa bermatzeko obligazioa.
- Funtzionarioen Montepioaren ordainketa kontzeptua eraldatzeko beharra, baita Arga ibilbidearen eta Hiri Garraioaren kontribuzioa bezalako kontzeptuak eraldatzeko ere.

13- LANGILERIA

- Lan postuen zerrendatzea eta beharren ikerketa egitea: behar errearen araberako plantilla organikoaren eguneraketa, honakoei arreta berezia eskainiz:
 - Arlokako beharrak.
 - Enpleguaren banaketa, errelebo kontratuak eta aurre- erretiroak sustatuz.
 - Lan postuen parekatzeak.
 - Izendapen libreko karguak.
 - Ordutegi malgutasuna herritarren beharretara egokitzeko.
- Formakuntza Plan jarraitu baten lanketa.
- Gainontzeko udal talde politikoaren ordezkariarekin negoziazio prozesu bati ekingo zaio, baita udal langile eta euren ordezkari sindikalekin ere, plantillaren eta langileriaren inguruko neurriak adosteko.
- Enpleguari dagokionez, lan baldintza duinen eta familia kontziliazioaren alde lan egingo da, lan hitzarmenak berrikuskatuz.

